



COVID-19 NEWSLETTER

Eslovakia 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA

Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an
% -7,2


Inflazioa gaur egun (apirila)
% 2,1


Inflazioaren aurreikuspena 2020rako: % 1,7

Langabezia gaur egun (apirila)
% 7,4


Langabeziaren bilakaeraren aurreikuspena 2020rako: % 8,8


Inpaktua sektore industrialetan


 **Automozioa:**
Eslovakiako ekonomiaren trakzio-sektorea gelditu egin da, Eslovakian kokatutako ekoizpen-lantegi guztiak itxita egon direlako (Volkswagen, Jaguar-Land Rover, Peugeot, KIA). Orain, pixkanaka lanean hasi dira berriro. OEM guztiak ekoizten ari dira une honetan

 Enpresek jaitsiera igarri dute beren jardueran, arazoak daudelako osagaien hornikuntzan eta COVID-19a zabaldu egin delako Eslovakiarentzat garrantzitsuak diren merkatuetan. Argindar kontsumoa % 7 eta % 8 bitartean jaitsi da

Inpaktua zerbitzuetan

 **Ostalaritza sektorea**
Maiatzaren 6az geroztik gradualki berrirekitzen ari da (hainbat baldintzarekin). Aurrera jarraitu da murrizketak kentzeko prozesuarekin


 **Aireko garraioa**
Aireportuak itxita daude bidaiarien garraiorako. **Neurri hori ekainaren 11ra arte luzatu da.** Partzialki altza dira 20 bidaiari arteko hegaldi pribatuetarako murrizketak. Oraindik ez dakigu zehazki noiz hasiko diren berriz hegaldi zibilak

 **Supermerkatuak**
Igandeetan itxita
Higiene-neurri zorrotzak

 **Autobusak eta trenak**
Barneko zerbitzuak murriztu egin dira

Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Interes-tasak: % 0
- ❖ Zabaldu egin da hedapen kuantitatiboko programa
- ❖ *Contactless* ordainketen muga igo egin da, 20 eurotik 50 eurora



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Neurri fiskalak (enpresak)

- ❖ Errenta aitortpena atzeratzeko aukera
- ❖ Errentaren gaineko zergaren ordainketa aurreratuak atzeratzeko aukera, baldin eta diru-sarrerak % 40 baino gehiago murrizten badira
- ❖ Kontrol eta prozedura fiskalak eten egin dira

Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)



- ❖ Maileguen ordainketak 9 hilabetez atzeratzeko aukera herritar, autonomo eta ETEentzat
- ❖ ČSOB, UNI Credit eta VÚB bankuek hipoteka-kredituen tasak handitu dituzte
- ❖ 3 hilabeteko luzamendua etxebizitza eta lokal komertzialen alokairuak ordaintzeko

Dirulaguntzak eta mailegu publikoak

- ❖ **Antikorona záruka programak** zubi-kredituak emango ditu enpresei laguntzeko pandemiak dirauen bitartean. Banku komertzialek baldintza oso abantailatsuak dituzten maileguak emango dizkiete osasun krisiak kolpatutako ETEei.
- ❖ Esportazioa finantzatzen duen estatuko EXIMBANKA SR bankuak produktu berri bat jarri du martxan esportatzaileentzat: **“COVID ÚVER”**. Eslovakiako Berme eta Garapen Bankuak (SZRB) ere kreditu programa berriak abiarazi ditu
- ❖ Aipatutako programak ETEei zuzenduta daude, **baina gobernuak enpresa handiak ere kontuan hartuko dituen berme-eskema bat prestatu du, eta espero da Europar Batasunak onartuko duela**

Lan-indarra

- ❖ Maiatzaren 25era arte, 96 milioi euro baino gehiagoko laguntzak plazaratu dira lanpostuak mantentzeko. “Prvá pomoc” programa ere ekainera eta uztailera luzatu da
- ❖ Kurzarbeit: Estatuak bere gain hartuko du lanaldi murriztuan dauden langileen soldataren zati bat (batez besteko soldataren % 80raino, gaur egun, gehienez 880 euro). Laguntza horren igoera negoziatzen ari dira
- ❖ Osasun Publikoko Agintaritzaren erabakiz itxi diren enpresetako enplegatzaileak aseguru sozialari egin beharreko ordainketetatik salbuetsita daude apirilean, gutxienez 15 egunez
- ❖ Enplegatzaileak atzeratu egin ditzake Gizarte Segurantzako zergen ordainketak (martxoa, maiatza), bere diru-sarrerak % 40 baino gehiago murrizten direnean. Iraungipen data 2020ko abenduaren 31ra arte luzatu da
- ❖ **Langileak**
 - Berrogeialdian dauden langileei eta haurrak zaintzen dituzten gurasoei (OČR) beren eguneroko batez besteko soldataren oinarriaren % 55 ordainduko zaie
- ❖ **Autonomoak**
 - Estatuak ekarpenak egingo ditu diru-sarreraren galeren larritasunaren arabera eta, era berean, ekarpenak egingo dizkie martxoaren 13az geroztik diru-sarrerarik gabe gelditu diren autonomoei
- ❖ **Hiritarrak**
 - Krisi egoeratik beren jarduera garatu ezin izan duten eta diru-sarrerak galdu dituzten pertsonak 210 euroko laguntza jaso dute apirilean (105 martxoan)




MUGAK

Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✓ **Merkatu-gaien garraioak** mugarik gabe jarraitu du lanean. Kargen garraioa % 15 % 20 murriztu da
- ⬇️ **Nazioarteko 3 aireportuak itxita daude** (zenbait hegaldi motarentzat izan ezik). Era berean, **tren eta autobus bidezko barneko garraioak** gutxitu egin dira

Biztanleriaren mugikortasuna

- 📍 Osasun arloko larrialdi egoera martxoaren 16an deklaratu zen
Maiatzaren 20an indarrean sartu da ekonomia berrirekitzeko planaren 4. fasea 
- 🚫 **Unibertsitateak eta eskolak** itxita daude. Haurtzaindegiak eta eskolak irekita daude ekainaren 1etik aurrera (1-5 ikasturteak)
Derrigorrezkoa da espazio publiko itxietan maskara erabiltzea; kalean, bakarrik erabiliko da ezin bada gorde gutxieneko 2 metroko distantzia soziala
- ! **Gomendatzen da:**
 - herrialdetik ez irtetea
 - etxetik irtetea soilik beharrezkoa denean

Mugetako egoera

- 📍 **Errepideak**
Mugetako kontrolak ekainaren 26ra arte luzatu dira. Atzerritarrek debekatuta dute herrialdean sartzea (badaude salbuespenak). Nazioarteko errepideko **garraioa mugatuta dago** (autobusak), zamalanetarako izan ezik
- 📍 **Burdinbideak**
Nazioarteko burdinbideetako garraioa **mugatuta dago**, zamalanetarako izan ezik
- ! **Aireportuak**
Nazioarteko 3 aireportuak itxita daude (zamalanetarako, erreskaterako edo hegaldi teknikoetarako izan ezik)
- ! **Berrogeialdia**
Eslovakian sartzen diren pertsona guztiek (badaude salbuespenak) **berrogeialdia igaro behar**

dute Estatuak horretarako ezarritako establezimenduetan, COVID-19aren diagnostikoprobak egiteko behar den denboran

Maiatzaren 22ko 20:00etatik aurrera, Eslovakian sartzen diren eta *eKarenténa* mugikorreko aplikazioa aktibatuta duten pertsonak etxean egin dezakete 14 eguneko berrogeialdia

2020ko maiatzaren 21eko (osteguna) 7:00etatik aurrera, bizileku iraunkorra edo aldi baterako bizilekua Eslovakian duten egoiliarrek baimena dute Txekiar Errepublikara eta beste zazpi herrialdetara bidaiatzeko, eta Esloveniara itzultzean ez dute COVID-19aren proba negatiboa aurkeztu edo derrigorrezko berrogeialdirik egin behar. Neurri hori aplikatzen da 48 ordu baino gutxiago igarotzen badituzte Esloveniatik kanpo

